


ISEI - IVEI

**Rs8. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO
BIGARREN HEZKUNTZA BUKATZEA**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2010

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84 info@isei-
ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



GUTXIENEZ DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKO IKASKETAK (CINE 3A, 3B ETA 3C) BUKATU DITUEN 20-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar batasunaren helburua 2010. urterako: 20-24 urte bitarteko pertsonen artean gutxienez % 85ek goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak (CINE 3) bukatuta izan behar dituzte. Oso garrantzitsua da biztanleria helduaren ehuneko handi batek goi mailako bigarren hezkuntzako titulazioa lortzea, biztanleria orokorraren ikasketa maila igotzeari begira eta bereziki langileena.

Hezkuntza maila horrek eskaintzen dituen prestakuntza eta gaitasuna, goi mailako hezkuntzara sartzeko propedeutikoa izateaz gain, berez bukaerako prestakuntza bezala har daitezke, gazteen integrazio egokirako behar diren adimen eta giza heldutasuna eta gaitze teknikoak eskaintzen baititu, bai goi mailako ikasketetan baita lan munduan ere.

Gaur egun, ezagutzen oinarritutako gizartean egoki parte hartzeko behar-beharrezkoa da derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzak ematen duen oinarria edukitzea. Izan ere, KGEEko herrialdeetan goi mailako bigarren hezkuntzako titulazioa gutxienezko hezkuntza mailatzat jotzen dute lan-merkatuan lanpostu egokia eta lehiakorra lortzeko.

Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak bukatu dituen biztanleriaren batez besteko tasa da Europar Batasuneko 27 herrialdeetan 2008an % 78,5 zen. 2000. urtetik aurrera etengabeko bilakaera izan du, baina % 1,9z bakarrik igo da eta, beraz, 2010. urterako finkatutako helburura heltzea oso zaila izango dela pentsa daiteke. Hala eta guztiz ere, 2008an, 2007an bezala, EBko 27 herrialdeetako 9k lortua dute helburua, adibidez Ziprek (% 85,1) eta Eslovakiak (% 92,3, tasarik handiena). Ehuneko baxuena duten herrialdeen artean Malta (% 54,2) eta Portugal (% 54,3) daude, 2000-2008 aldian zehar hurrenez hurren % 13,3ko eta % 11,1eko igoera izan duten arren.

Euskadin, 2000-2008 aldian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko titulazioa duen adin horretako biztanleriaren ehunekoa egonkor samar mantendu da, % 80-81 inguruan, 2003an izan ezik, urte hartako ehunekoa (% 78,3) baxuagoa izan baitzen. Kopuru horiek % 85etik urrun samar geratzen dira, eta aldi horretako bilakaera kontuan izanik, pentsa daiteke Euskadik ez duela beteko Europar Batasunak 2010. urterako finkatu duen helburua. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da Euskadin adin tarte horretako emakumeek finkatutako helburua gainditu dutela, goi mailako ikasketa horiek % 85,7k bukatu baititu.

Autonomia Erkidegoei dagokienez, kasua larriagoa da, 2000-2008 aldian izandako bilakaera (-5,9 puntu) negatiboa izan baita, orokorki eta Erkidego gehienetan. Salbuespenak Extremadura (1,7 puntu), Galizia (1,2 puntu) eta Asturias (1,0 puntu) izan dira, ehunekoa handitu baitute.

Autonomia Erkidegoetako batez bestekoa 2008an % 60,0 izan zen. Ehunekorik altuena izan zuen erkidegoa Euskadi izan zen (% 80,1) eta bigarrena Nafarroa (% 77,3). Ehunekorik apalenak 2008an Ceutan eta Melillan (% 43,2) eta Balear Uharteetan (% 48,2) izan ziren.



Azpimarratzeko modukoa da azken bost urteotako joera (2004-2008) Espainian beheranzkoa izan dela, Europar Batasuneko herrialdeetan, berriz, apurka-apurka goranzkoa izan delarik.

Adierazle honetan ere gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun handiak nabaritzen dira, eta ezberdintasun horiek urteetan zehar mantendu dira.

2008an, bai Europar Batasuneko herrialdeetan, bai Autonomia Erkidegoetan eta baita Euskadin ere, emakumezkoek gizonetzkoek baino ehuneko handiagoan lortu dute goi mailako bigarren hezkuntzako titulazioa. Espainiaren kasuan aldea 14,9 puntukoa izan da. Alderik handiena (24 puntu) Kanarietan izan da, eta txikiena (10,4 puntu) Euskadin. Salbuespena Ceuta eta Melilla izan dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak bukatzen dituztenen ehuneko handiagoa baita gizonen artean (%44,3) emakumeen artean (% 42,1) baino.

EBko 27 herrialdeetan batez besteko aldea 5,7 puntukoa da. Alderik handienak Danimarkan (15,0 puntu), Espainian (14,9 puntu) eta Portugalen (14,8 puntu) izan dira. Alderik txikienak Austrian (0,6 puntu), Errumanian (0,7 puntu), Txekiar Errepublikan (1,2 puntu) eta Eslovakian (2,6 puntu) izan dira. 2008an goi mailako bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekoak Bulgarian bakarrik izan da handiagoa gizonen artean (% 84) emakumeen artean (% 83,4) baino.




Rs8.1 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.

Urtea*	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
2000	81,5	87,6	75,7	12,0
2001	81,2	86,5	76,2	10,4
2002	81,0	83,4	78,6	4,9
2003	78,3	83,7	73,2	10,5
2004	81,5	85,5	77,7	7,8
2005	81,0	86,0	76,3	9,7
2006	81,2	87,3	75,3	12,0
2007	80,8	86,6	75,3	11,3
2008	80,1	85,4	75,0	10,4

*Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.



Iturria: INE. Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.



Rs8.2 taula:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia Erkidegoetako datuak.


	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
GUZTIRA	65,9	64,9	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0
Andaluzia	58,3	58,5	56,4	54,3	52,8	53,1	52,3	54,0	53,0
Aragoi	75,1	75,6	68,0	71,3	70,1	70,9	67,9	66,4	67,3
Asturias	71,8	73,9	72,4	64,6	66,9	72,2	67,0	70,2	72,8
Balearr Uharteak	50,8	50,3	54,2	52,2	51,1	51,9	51,0	47,6	48,2
Ceuta eta Melilla	51,1	56,1	53,7	53,6	50,6	46,2	39,4	37,5	43,2
Errioxa	70,7	71,9	69,7	63,2	59,8	67,8	64,8	62,1	59,3
EUSKADI	81,5	81,2	81,0	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1
Extremadura	51,9	55,4	57,3	55,8	51,9	53,9	54,6	55,4	53,6
Galizia	65,0	66,5	66,8	69,2	68,8	69,2	67,5	68,0	66,2
Gaztela eta Leon	69,9	69,6	70,0	67,6	70,2	66,6	67,1	67,4	67,1
Gaztela-Mantxa	59,1	57,6	55,8	55,5	55,6	55,0	54,2	54,1	51,7
Kanariak	55,6	54,6	59,3	59,1	58,4	59,3	54,4	52,1	55,5
Kantabria	71,1	69,6	67,1	65,3	67,0	71,8	69,6	67,5	70,4
Katalunia	67,9	65,4	65,0	60,9	59,4	61,2	65,7	61,2	59,4
Madril (Erkidegoa)	77,9	75,6	72,0	72,2	68,6	67,9	66,4	67,2	65,4
Murtzia	57,2	58,4	56,0	52,9	51,7	53,0	51,9	51,8	51,0
Nafarroa (F. Erkidegoa)	82,4	79,8	75,6	75,0	73,7	77,4	82,9	78,4	77,3
Valentziako E.	62,1	58,5	58,1	58,4	58,6	61,0	61,8	61,4	59,1

Iturria: INE. Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.



Rs8.2 grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoa. Autonomia Erkidegoetako datuak. 2004. eta 2008. urteetan.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2008. urtea" irizpidearen arabera.


Iturria: INE. Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.



Rs8.3 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia Erkidegoetako datuak. 2008. urtea.

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
GUZTIRA	60,0	67,6	52,7	14,9
Andaluzia	53,0	58,9	47,4	11,5
Aragoi	67,3	77,0	58,1	18,9
Asturias	72,8	79,1	66,7	12,5
Balear Uharteak	48,2	56,5	40,2	16,3
Ceuta eta Melilla	43,2	42,1	44,3	-2,2
Errioxa	59,3	68,5	50,8	17,7
Euskadi	80,1	85,4	75,0	10,4
Extremadura	53,6	60,9	46,7	14,2
Galizia	66,2	75,3	57,4	17,9
Gaztela eta Leon	67,1	74,5	60,1	14,4
Gaztela-Mantxa	51,7	60,6	43,4	17,3
Kanariak	55,5	67,6	43,6	24,0
Kantabria	70,4	80,6	60,6	20,1
Katalunia	59,4	67,8	51,3	16,5
Madril (Erkidegoa)	65,4	72,5	58,5	14,0
Murtzia	51,0	60,6	42,3	18,3
Nafarroa (F. Erkidegoa)	77,3	83,7	71,2	12,6
Valentziako E.	59,1	65,6	52,9	12,7



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: INE. Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.



Rs8.4 taula:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EB (27 herrialde)	76,6	76,6	76,7	76,9	77,1	77,5	77,9	78,1	78,5
EB (25 herrialde)	76,6	76,5	76,7	77,0	77,3	77,6	77,9	78,0	78,4
EB (15 herrialde)	73,7	73,6	73,7	74,0	74,4	74,7	75,0	75,2	75,8
Alemania	74,7	73,6	73,3	72,5	72,8	71,5 (b)	71,6	72,5	74,1
Austria	85,1 (b)	85,1	85,3	84,2	85,8 (i)	85,9	85,8	84,1	84,5
Belgika	81,7 (b)	81,7	81,6	81,2	81,8	81,8	82,4	82,6	82,2
Bulgaria	75,2	78,1 (b)	77,4	76,3	76,1	76,5	80,5 (i)	83,3	83,7
Danimarka	72,0	78,4 (i)	78,6	76,2 (b)	76,2	77,1	77,4	70,8 (b)	71,0
Erresuma Batua	76,7	76,9	77,1	78,6	77,0	78,1	78,8	78,1	78,2
Errumania	76,1	77,3	76,3	75,0	75,3	76,0	77,2	77,4	78,3
Eslovakiar Errepublika	94,8	94,4	94,5	94,1	91,7	91,8	91,5	91,3	92,3
Eslovenia	88,0 (b)	88,2	90,7	90,8	90,5	90,5	89,4	91,5	90,2
ESPAINA	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0
Estonia	79,0 (b)	79,8	81,4	81,5	80,3	82,6	82,0	80,9	82,2
EUSKADI*	81,5	81,2	81,0	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1
Finlandia	87,7 (b)	86,1	85,8	85,3	84,5	83,4	84,7	86,5	86,2 (p)
Frantzia	81,6	81,8	81,7	81,3 (b)	81,7	83,4	83,2	82,4	83,7
Grezia	79,2	80,2	81,1	81,7	83,0	84,1	81,0	82,1	82,1
Herbehereak	71,9	72,7	73,1	75,0	75,0	75,6	74,7	76,2	76,2
Hungaria	83,5	84,7	85,9	84,7 (b)	83,5	83,4	82,9	84,0	83,6
Irlanda	82,6	83,9	84,0	85,1	85,3	85,8	85,7	86,8	87,4
Italia	69,4 (b)	67,9	69,6	71,0	73,4	73,6	75,5	76,3	76,5
Letonia	76,5	71,7 (i)	77,1 (b)	75,4	79,5	79,9	81,0	80,2	80,0
Lituania	78,9 (i)	80,5	81,3 (b)	84,2	85,0	87,8	88,2	89,0	89,1
Luxemburgo	77,5	68,0	69,8	72,7 (b)	72,5	71,1	69,3	70,9	72,8
Malta	40,9	40,1	39,0	45,1 (b)	51,0	53,7	51,1	55,5	54,2
Polonia	88,8 (b)	89,7	89,2	90,3	90,9	91,1	91,7	91,6	91,3
Portugal	43,2	44,4	44,4	47,9	49,6	49,0	49,6	53,4	54,3
Suedia	85,2	85,5 (b)	86,7	85,8	86,0	87,5	86,5	87,2	87,9
Txekiar Errepublika	91,2	90,6	92,2	92,1	91,4	91,2	91,8	91,8	91,6
Zipre	79,0	80,5	83,5	79,5	77,6	80,4	83,7	85,8	85,1

(b) Seriearen haustura

(i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estrat/inf/sdds/en/strind/innore_ir09.htm

(p) Behin-behineko balioa

Oharra: 2006ko urtetik aurrera adierazle hau lau hiruhilabeteetako urteko batez bestekoetatik kalkulatu da.


*Euskadirako INEko datuak.

Iturria: EUROSTAT.



Rs8.4 grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. 2004. eta 2008. urteetan.



Oharra: handienetik txikienera ordenaturik, erreferentziatuz 2008. urtea harturik.

Iturria: EUROSTAT.



Rs8.5 taula:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2008. urtea.

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
EB (27 herrialde)	78,5	81,4	75,7	5,7
EB (25 herrialde)	78,4	81,5	75,4	6,1
EB (15 herrialde)	75,8	79,1	72,6	6,5
Alemania	74,1	76,4	71,9	4,5
Austria	84,5	84,8	84,2	0,6
Belgika	82,2	83,9	80,5	3,4
Bulgaria	83,7	83,4	84,0	-0,6
Danimarka	71,0	78,6	63,6	15,0
Erresuma Batua	78,2	80,0	76,4	3,6
Errumania	78,3	78,6	77,9	0,7
Eslovakiar Errepublika	92,3	93,6	91,0	2,6
Eslovenia	90,2	93,6	87,4	6,2
ESPAINA	60,0	67,6	52,7	14,9
Estonia	82,2	88,3	76,0	12,3
EUSKADI*	80,1	85,4	75,0	10,4
Finlandia	86,2 (p)	87,6 (p)	84,6 (p)	3,0
Frantzia	83,7	86,0	81,4	4,6
Grezia	82,1	86,6	78,0	8,6
Herbehereak	76,2	80,6	71,9	8,7
Hungaria	83,6	85,5	81,7	3,8
Irlanda	87,4	91,0	83,9	7,1
Italia	76,5	79,7	73,5	6,2
Letonia	80,0	86,0	74,3	11,7
Lituania	89,1	92,3	85,9	6,4
Luxemburgo	72,8	77,4	68,3	9,1
Malta	54,2	58,3	50,5	7,8
Polonia	91,3	93,3	89,3	4,0
Portugal	54,3	61,9	47,1	14,8
Suedia	87,9	89,7	86,2	3,5
Txekiar Errepublika	91,6	92,2	91,0	1,2
Zipre	85,1	89,5	80,1	9,4

(p): Behin-behineko balioak


*Euskadirako INEko datuak.

Iturria: EUROSTAT.



Rs8.5 grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2008. urtea.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT.